

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

# BERRI PAPERERA



AMAIA ZENTROA  
Benito Perez Galdos Z/G  
01002 Gasteiz  
Araba  
E.: araba@bertsozale.eus  
T.: 945 01 05 05  
www.bertsozale.eus/araba



## Martxoaren 12an, kristo guztia Argantzunera!

Aitzakiarik ez

Asier Lafuente

Ederra izaten ari da Kuadrilla artekoa. Trebiñun aukeztu, Izarran joko-jolasak, Laudion koplak, Araian eta Zalduondon txalaparta eta boloak, Kanpezun herri-kirolak. Entzule gutxi baina gozamina "tope guana"; bertsotan gozatzen eta beste taldeen igurtziaz zer esanik ez. Bi topaketa falta dira: Errekaleorren bertso-guda (tripak atera arte edo zer da hau?) eta Oionen saio musikatua (gitarrita laio-lailo).

Eta martxoaren 12an, Argantzunera, Trebiñuren konkistaraaaaaa.  
10 arrazoi Argantzunera joateko:

- Bazkaria dohainik delako (parte hartu duzuenontzat)
- Paella soberan geratzen bada etxera

eraman dezakezuelako (ekarri taper bat!)

- Bertan lo egiteko aukera dohainik delako (ekarri zakua)
- Bertsotan aritzea edo entzutea gustatzen zaigulako
- Talde guztiek parte hartu behar dutelako (Bileratan horretan geratu ginen; eta hitza hitz!)
- Kristoren elektrotxaranga joko duelako: Orkresta
- Bertso-ragga ez duzulako galdu nahi
- Trebiñu Araba delako
- Txosna egondo delako
- Gu eta gutarrak egongo garelako, politikak eta zatarrak.

Ez bazatoz... egun batean, kantoi ilun batean...egurra emango dizugu!

## KOPLA

Halako jairik ta bazkaririk ez denez izaten sarri, badaezpada Argantzunera adur-zapi bat ekarri!



Argitalpenaren  
laguntzaileak



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

www.alava.net



# Merke-merke ez, DOHAINIK!

Mundua salerosketa bat denean ABek bertso-saioak dohainik eskaintzen ditu. Tori Bitori!

Asier Lafuente

Arabako Bertsozale Elkarateak 2008an ARABA BERTSOZALE egitasmoa martxan ipini zuen; ahalegin berezia eginez bertsoaritzaz ezezaguna den tokietara eta kolektiboengana hurbiltzeko. Era berean, bertso-saio bat bilgune delarik, euskararen erabileran positiboki eragin nahi du Arabako Bertsozale Elkarateak: euskararen presentzia soziala, kantitatea eta kalitatea bultzatuz jai giroan eta kultur programazio orokorrean.

Horretarako, aurtan, Arabako elkarteei, entitate publikoei (udalak, kontzejuak) eta kolektiboari (jai batzordeak, gazte asanbladak...nahiz eta izaera juridikorik ez eduki) 12 bertso-saio dohainik antolatuz eskaintza publikoa egin du Arabako Bertsozale Elkarateak.

Eskaerak baloratzeko hainbat kontu baloratuko dira, adibidez: Arabako bertso-eskolen eskaera bada, bertso-saio gutxi egiten diren herrietarako eskaera, bertso-saio gutxi antolatu duten kolektiboen eskaera, urriaren hasiera baino lehen egingo diren eskaera, bertso-saioaren hartzaileen ezaugarriak; bertso-saio gutxi entzundakoak badira, kolektibo antolatzaileak bertso-saioari eman ahal dion babesa.

Bertso-saioak Araba osoan zehar banatzeko ahalegina egingo du Arabako Bertsozale Elkarateak, hau da, 12 saioak Aiaraldean, Gorbeialdean, Lautadan, Mendialdean, Arabako Errioxan, Trebiñun eta Añanan banatzen saiatuko da.

Eskaerak Arabako Bertsozale Elkartera bidali behar dira:

araba.sustapena@bertsozale.eus  
Edo telefonoz, 675 70 79 71

Martxoaren 11a eskaera egiteko azken eguna.

Apirilaren 12an eskatzaileei jakinaraziko zaie eskaera onartzen zaien. Eskaera onartuz gero eskatzaileak lan batzuk egin beharko ditu bertso-saioa gauzatzeko: bertsolariak aukeratu, LANKUra deitu, kartela...

Web gunean daude baldintzak, eskaera egiteko bidali behar den informazioa...  
<http://www.bertsozale.eus/eu/araba/pr-oiektuak/araba-bertsozale>

Bertso-eskolak! ERNE! Eskaera egin nahi baduzue martxoaren 11a azken eguna da. Bestela zabaldu mezu hau interesa eduki dezakeenen artean.



## Oholtzapetik, alde ilunaren boterea

Asier Lafuente

Arabako Bertsozale Elkarateak 2016ko udaberrian, bertsozaleei eskaini nahi die Arabako bertsolarietara gozatzeko aukera berri bat. Horretarako, egitasmo berri bat martxan ipiniko du: "Arabako bertsolariak OHOLTZAPETIK entzulea epaile"

Arabako 16 bertsolari parte hartuko dute, lau saiotan banatuta. Oholtzarik gabeko aretoetan jokatuko dira 4 saio hauek. Lau herritan, beraz, eta 25-40 lagunentzako aretoetan.

Publikoaren epailetzaren arabera, finalerako sailkatuko da saio bakoitzaren bozkatuena. Beraz, finalean, oholtza gainean, 4 bertsolari kantatuko dute. Finalean ez da epailetzarik egongo, ez da irabazlerik izendatuko.

Ondo apuntatu datak:

**Apirila 8, ostirala, 20:30, 1. Jardunaldia, Ozaeta, Iduia Jauregian**

Iñaki Viñaspre, Julen Zulaika, Izar Mendiguren, Orlando Arreitunandia  
Gai-jartzailea: Nieves del Alamo

**Apirila 15, ostirala, 20:30, 2. Jardunaldia, Murgia, Liburutegian**

Oihane Perea, Asier Otamendi, Iker Agirre, Peru Abarrategi  
Gai-jartzailea: Aintzane Irazusta

**Apirila 22, ostirala, 20:30, 3. Jardunaldia, Agurain, Zabalarte etxean**

Manex Agirre, Zigor Enbeita, Felipe Zelaieta, Asier Rubio  
Gai-jartzailea: Marta Ugarte

**Maiatzak 6, ostirala, 20:30, 4. Jardunaldia, Amurrio, Kultur Etxean**

Xabi Igoa, Jon Ruiz de Pinedo, Juan Mari Juaristi, Paula Amilburu  
Gai-jartzailea: Oier Suarez

**Finala, Maiatzak 13, ostirala, 20:30, Legutian.**



# AGENDA!

Otsailak 26 LAUDIO	BERTSO SAIO BEREZIA	“Bertsoaritzaren sekretuak” emanaldia Lanbide Heziketa Ikastetxeko antzokian, 19:00 Jokin Murua, Itxaso Paia, Jokin Labayen, Idoia Noble Antolatzailea: Audioko Udala. Kultura
Otsailak 27 GASTEIZ	Arabako Bertso Kuadrila Artekoa	Errekaleorreko Gaztetxean, 12:00etan hasita Bertso sortak, bazkaria eta bertso guda. Antolatzaileak: Arabako bertso-eskolak, Arabako Bertsozale Elkartea
Martxoak 5 OION	Arabako Bertso Kuadrila Artekoa	Herriko plazan, 12:00etan hasita Bertso-triki poteoa, bazkaria eta bertso saio musikatua. Antolatzaileak: Arabako bertso-eskolak, Arabako Bertsozale Elkartea
Martxoak 10 GASTEIZ	BERTSO POTEOA	Kutxiko Tabernalk, 19:00 Amaia Iturriotz, Ane Labaka Antolatzailea: Gasteizko Unibertsitateko Emakume Taldea
Martxoak 11 URKABUSTAIZ	BERTSO SAIO MUSIKATUA	Kultur etxean, 20:00 Paula Amilburu, Irati Anda, Izar Mendiguren, Oihane Perea Antolatzailea: Lan Eta Jolas Elkartea, Urkabustaizko Gazte Asanblada
Martxoak 12 ARGANTZUN	Arabako Bertso Kuadrila Artekoa	Herriko plazan, 12:00etan hasita Bertso erronkak, bazkaria, bertso saio musikatua, bertso guda, elektotxaranga, bertso ragga... Antolatzaileak: Arabako bertso-eskolak, Arabako Bertsozale Elkartea

## ZERNAHI

### HERRI EPAIKETA



Xabi Igoa

Izarran Gorbeialdeko topeketa izan zela dio bertsio ofizialak, baina herri epaiketa bat ospatu zen bertan. Bertsolari Aldizkariak argitaratu duen “Nork” komikiaren galdera nagusiari erantzuna emateko: “Nork hil du Andoni Egaña?”

Luzaroan aztertu ondoren, herrien ordezkari Gomez eta Abarretegik plazaratu zuten erabakia.

Bertsozale elkarteari dagokio orain hiltzaileari zigorra ezartzea.

